

OSOQUNEKO ERAKASKERA
1993-94

① ELHEKETA: ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA

1. Iraultza zer egin zuen Benabarrian.
2. Zer gertatu zen 1839an Espainian.
3. Zer dira Arnegi eta Luzaide.

② ZER GINEN ETA ZER GIREN
BENABARRA - 2 -

Eta ikhustekoa zen nola asalatu ziren Erreboluzioaren denboran khendu nahi izan zaskotelarik, bertze Frantziako eskualde guzietako lerro berean ezarri nahiz, borthitzki yokaturik.

Pariserat igorri zituzten mezulari batzu yakhinarazteko Benabarrak etzuela hori sekhula yasain, bainan erraiten ohi den bezala arrain haundiak ttipia iresten du, eta gudua phizteko mehatxuen ondotik, amor emaita bortxatuak izan ziren, Benabartar dohakabeak.

Gauza bera gerthatu zaukun guri ere 1839'an, berrogoi t urthe berantago. Horra nola ahaltsuek ezeztatzen dituzten ahulen zuzenak.

Zenbat yauregi diren oraino xutik Benabarra maithagarri hortan, lehengo denboretako Nafarroaren haunditasunaren lekhuotasunak! Baigorri, Donazarren, Buzunaitzen, Garron, Lakharren, Donaphaleun, eta beste lekhu anitzetan. Nafarroako aitorsemeren gaztelu eta egoitza ederrak, ze hitsura sendiarazten dituzten zerbait irakhurtu dituanari, zfen aitzipean gelditzen girelarik, behakoa landatua eta bihotza ilhundua, gogoia oroitzapenez bethea gure behialako Nafarroaz, eta orai ikhustean berexia, phuskatua, arrotztua bere semeak odolaren deari ukho egiten dutenak, aitzinekoekin dituzten lokharriak urraturik!!

Eta denak bat ginela haurrideak, hor ditugu ausarki frogak berme.

Azparren, Etxarri, Uharte, Azkarate, Lekunberri, Azketa, Zabalza, Anoz (Anhau), Askoz (Occos), hango eta mengo herri izen berekoak.

Ortzaiz, Isturiz, Irisarri, Sueskun, Mongelos, Buzunariz, Izpura, Lasa, Zaro. Ustaritz, Etxaleku, Etxepare, Irigoyen, Yatsu (Jaso), Intxauspe, Garro, Osinaga, Garbayo, Oyarbide, Goñi ta holako anitz, Nafarroako eta Benabarreko deiturak edo «apelliduak».

Eta gogorat heldu zait, egun batez, (Yainkoak ez dezala nahi) phitz baladi gudu bat Espainia eta Frantziaren arthean, Luzaide'koak eta Arnegi'koek behar lutekela borrokatu eta sarraskitu heien arthean, hauzo anaiak direlarik...

Iringarri liteke ez balitz gauza hitsa.

Iruñen, 1934'ko Hazillan.

* (El Día, 1935/1/26)

③ ADITZ IKASKUNTZA

31. ez dezala 32. lutekela
33. irringarri liteke 34. ez balitz

31. UKAN. Subjonctif Present. Obj. Sing.

- Nik ukan dezatan = que je l'aie
Hik -" - dezakan/nan = que tu l'aies
Zuk -" - dezagun = que vous l'ayez
Harek -" - dezan = qu'il l'ait
Guk -" - dezagun = que nous l'ayons
Zuek -" - dezagun = que vous l'ayez
Heiek -" - dezatan = qu'ils l'aient

32. UKAN. Conditionnel Present. Obj. Sing.

- Nik nuke = je l'aurais
Hik nukete = tu l'aurais
Zuk zinnuke
Harek nukete
Guk ginnuke
Zuek zinnukete
Heiek nukete etc.

Objet pluriel = nituzke, hituzke, zinituzke, lituzke, ginituzke, zinituzkete, lituzkete

33. ZAN. Conditionnel Present.

- Ni (izan) nintzke = je serais
Hi (izan) hintzke = tu serais
Zu (") zintzke = vous seriez
Hura (") litzke = il serait
Gu (") gintzke = nous serions
Zuek (") zintzketete = vous seriez
Hei (") litzke = il serait